

Lexikoa irakasteari buruzko zenbait ohar

Isabel Arrigain Azkona

Berebiziko garrantzia du, ezbairik gabe, lexikoak hizkuntza batean. “Komunikatzeko, emadazu hiztegia eta ez gramatika-liburua” zioen irakasle batek. Hizkuntzen irakaskuntzan izan diren eta badiren korronte metodologiko guztietan, hein batean nahiz bestean, hartu da aintzat lexikoaren irakaskuntza. Artikulugileak lexikoa sailkatzeko modu bat eskaintzen du hemen eta, sailkapen hori gogoan, irakasteko proposamena ere egiten du lexikoaren formari bereziki erreparatuz. Berak dioenez, “-kor atzizkiak, esaterako, oinarriari ematen dion esanahia ikasi behar da, ez maitakor, haserrekor, suminkor... hitzen gaztelaniazko baliokideak, banan-banan. Hori baita, gure ustez, euskal lexikoa ikasteko bide emankorra, eta lexikoa antolatzeke era ziurragoa”. Artikuluan azpimarratzen da ikasleak ez dituela, besterik gabe, hitzak lotu behar ariketak edo jarduerak egiten dituenean, baizik eta ikasi behar dituela hitz horien esanahiak, konbinazioak eta erabilera-mailak.

Non helburua, han ahaleginak

Sarrera¹

Bigarren hizkuntza baten ikas-prozesua ikaslearen baitan datza. Baina prozesu hori erraztu eta bideratu daiteke kanpotik. Eta asmo horretan, hizkuntzaren barne-mekanismoak ezagutzea, hizkuntza bera sistema den aldetik hartzea lagungarri gerta dakiguke. Hitzunok lehen hizkuntza erabiltzeko arauak, prozesuak eta buru-antolaketak nola, halaxe atzeman behar du ikasleak ere H₂ko sistema berria, hizkuntza horretan komunikatu nahiko badu. Helburua, zernahi gisaz, komunikatzea baita.

Gizarteek komunikazioari esker jardun dezakete; gizarteak ahal dira izan eta garatu, hain zuzen gizabanakoen artean informazio-trukaketa dagoelako. Trukaketa hori, alabaina, ez da nolanahikoa, eta giza-komunikazioak hiru baldintza bete behar ditu arrakastatsua izan dadin.

1. Lehenengo, komunikazioak **eraginkorra** izan behar du, eta horretarako, mezuaren igorleak hainbat baliabide jarriko ditu abian eta hainbat trebezia, helarazi nahi duen mezua gramatika eta kultura mailan ondo osatua egon dadin.
2. Halaber, **ekonomikoa** izan behar du, gizakiok (hartzaileok) datuak biltzeko eta prozesatzeko daukagun gaitasuna mugatua delako, hau

da, oroimena, perzepzioa etabar kontuan hartuz osatu behar du igorleak bere mezua.

3. Hirugarrenik, **arrakastatsua** izan behar du komunikazioak: hartzai-leak mezua jaso eta ondo deskodetu ahal du aurreko baldintzak bete direlako, eta gainera, mezua egoerarekiko egokia delako. Bigarren hizkuntza bateko irakaskuntzan, beraz, hiru baldintza horiek –azken batean komunikazioaren funtsa direnak– kontuan hartuta garatu behar dira metodoak eta egin beharreko urratsak.

Esan gabe doa gizakiak, komunikatu ahal izateko, ez duela ezinbestekoa hizkuntza, semiotikak ondotxo frogatzen digunez. Baina guk hizkuntza-komunikazioari soil-soilik erreparatuko diogu idazlan honetan, nahiz dakigun semiotikak onartzen dituen beste komunikatzeko sistemak ere lagungarri gerta dakizkiokeela hiztunari, eta horrenbestez baita hizkuntza bateko ikasleari ere, komunikazio-jardunean. Eta **hizkuntza-komunikazioari** begia kendu gabe, hizkuntza bat ikasteko gertatzen den prozesuaren alderdi bati batez ere egin nahi diogu kasu; alegia, **gaitasun lexikoari** erreparatu nahi diogu bereziki orri hauetan.

Saiatuko gara azaltzen, neurri txiki batean eta azalez bada ere, zer-nolako antolaketa egin daitekeen lexikoan, H₂ko ikasleei irakaskuntza era sistematizatuan eskaintzeko.

Euskararen irakaskuntza, gurean ikasten diren hizkuntza ohikoenetan bezalaxe, mailatan banatua dugu, *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoak* proposatutako banaketari egokitu, gainera. Baina hizkuntza horietan ez bezala, maila berri bakoitzari legokiokeen lexikoa aukeratu eta ahalik eta antolatuenen ematea egiteke dago euskaran.

Uste osoan gaude une aproposa izan daitekeela lexikoaren multzoa sailkatzeko eta berrantolaketa bat eskaintzeko. “Berria” aipatzen dugu, uste dugulako lexikoaren eremuan orain arte kontuan hartu ez diren alderdi batzuei egin behar zaiela kasu. Alderdi horiek zein diren saiaturako gara azaltzen, eta horrekin batera eredu didaktiko baten abiaburua proposatu nahi dugu, eskema gisa eta azaletik, beste idazlan batzuetan garatzeko.

Abiapuntua: irakasmetodoa

Historian zehar, hizkuntzalaritzak hizkuntzari buruzko hainbat teoria garatu ditu, eta teoria linguistiko horietako bakoitzak berriazko irakaskuntza-ikuspegi bat ekarri du. Izan ere, Hizkuntzalaritzan estrukturalismoa, gramatika sortzailea eta pragmatika landu eta garatu dira besteak beste, eta haietako bakoitzak bere ikuspegia ekarri dio hizkuntzen irakaskuntzari. Ikuspegi desberdinak sortzeaz bat, nola ez, ikuspegi horietan oinarrituriko ikasmetodoak ere garatu dituzte eskola edo korrante metodologikoei.

Egun *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia-Markoak* aski argi uzten digu hizkuntza batean komunikatzeko beharrezko diren gaitasun guztiak lantzeko bidea zein den: **ikuspegi ko-**

munikatiboa (elkarrekintzakoa ere esan geniezaioke), eta harekin batera irakasteko metodoa (atazetan oinarriturikoa).

Gureari dagokionez, euskararen irakaskuntza *Markoan* proposaturiko ikuspegi eta metodoei guztiz egokitze aldera, beharrezkoa da, ikasmailak eta programazioak dagoeneko egokituta daudenez gero, ikasmateriala ere maila berrituetara egokitzea.

Irakasmetodoan agian aditu guztiak ez datoz bat². Badago adostasuna, ordea, esatean H₂ko ikasleek **komunikatzeko gaitasuna** garatu behar dutela, alegia, eguneroko giza harremanetan hizkuntza ondo (era aiposean) erabiltzeko gaitasuna izan behar dutela; hau da, ikasleak, gramatikaz gain, beste ezagutza batzuk behar ditu hizkuntza-gaitasuna erabiltzeko, egoera bakoitzean zer esan behar duen jakiteko, gai egokiak aukeratzeko, momentu aproposak aukeratzeko, eta tokia eta solaskide egokiak hautatzeko. Izan ere, ikasleak jakin beharrezkoa jakite gramatikal hutsetik harago dago, **erabilerak** behar baititu atzeman.

Corpusa Eta erabilerei dagokionez, lehen-lehenik, erabiltzeko ereduak eman behar zaizkio ikasleari; hots, *corpus* fidagarri bat.

Bigarren hizkuntza guztien kasuan bezalaxe, euskara irakastean ere ezinbestekoa da hizkuntza-maila guztietako arauzko erabileretara hurbiltzea ikasleak. Arauzko erabilera horiek Euskaltzaindiak eta literatura-tradizioak dakarzkigute finkatuak neurri handi batean. Gogora dezagun hori zela hain zuzen, Koldo Mitxelenaren ustetan, euskararen estandarizaziora jotzeko bidea eta oinarria.

Esan gabe doa literatura-tradizioaren ondoan badagoela ezin ahaztuzkoa dugun kaleko hizkera, herri-literaturaren tradizioari atxikia dagoena, eta hiltunen senari guztiz lotua. Bien arteko oreka ezinbestekoa da erregistroak³– erabilera egokiak azken batean– bultzatu nahi baditugu².

Badago beste arlo bat, literatura-erabileren eta kaleko hizkeraren artean kokatua: kazetari-hizkera. Izan ere, prentsa-orrietan ere hizkuntza taxutzen da literatura-obra marduletan eta herri-hizkeran bezalaxe. Ez da pertsona-talde jakin baten erregistro berezia, baizik eta gizatalde garrantzitsuen hizkuntza islatzen du –politiko, artista eta oro har ‘bizitza publikoa’ duten jende-taldeena–.

Esan dezakegu egunkari, aldizkari eta mota guztietako agerkarietan⁵ agertutako hizkuntza-erabilerak hiltunen hizkera aldarazten dutela, onerako eta txarrerako. Hau da, **hizkuntza-jokamoldeak** sortzen dituzte, eskola onenak ere sortzen ez lekizkikeenak, askotan zuzenak eta bestetan okerrak, baina guztietan, behin sartuz gero, aldatzeko eta zuzentzeko zailak.

Eragin hori dela eta, uste osoan gaude euskal komunikabideen hizkuntza ere sartu behar dela, literatura-erabilerenarekin batera, irakaskuntzarako corpusean, altxor baliotsua baita **mailegu berrien, testuinguruko sino-**

nimoen eta kolokazioen adibideak topatzeko. Artikulu honetan frogatu nahi dugunez, hiru arlo horiek funtsezko mekanismoak baitira lexikogenesian⁶, eta horrenbestez, lexikoan eta lexikoaren irakaskuntzan.

Hartara, honela zedarrituko genuke euskararen irakas-prozesuan oinarri hartutako corpora:

- Literatura-erabilera.
- Komunikabideetako erabilera.
- kaleko hizkera.

Corpora hirurek osatu behar dutelakoan gaude, euskara aberatsa, zuzena eta egokia irakatsiko badiegu ikasleei.

Corpus linguistiko egokiaren beharra ezin ukatuzkoa da, funtsezkoa delako lexikogenesiako⁷ eta fraseologiako adibideak lortzeko, baita oinarri teoriko gaurkotua ere egiteko. Izan ere, ikasleek ikasiko duten lexikoak balio behar die kalean egun erabiltzen den hizkuntza egiteko; irakatsi egin behar zaie maiztasunak frogatzen digulako badaukagula esatea hitz batek (edo hitz konbinazio batek) hiltunengan bizirik dirauela.

Ez da aski izango, beraz, Orotariko Euskal Hiztegian jasota edo bestelako hiztegi batean dagoela esatea, adibidez, maiztasunak idazleetako edo komunikabideetako agerpenik frogatzen ez badigu. Hitzen (edota lokuzio eta konbinazioen) agerpen-maiztasuna neurtzeko tresnak hor ditugu sareratuak, denon helmenean. Eta garrantzizko kontua dugu agerpen-maiztasuna, erabilera errealei hurbiltzeko bide ziurrena delako, kapritxoak arautzeari ihes egiteko era segurua delako.

Lexikoaren buru-antolaketa

Hiztun batek dakizkien hitzei buruz hitz egitea da lexikoari buruz aritzea. Garrantzizko deritzogu lexikoia zer den agertzeari, uste dugulako argigarria gerta daitekeela lexikoa irakasteko metodo eta estrategiak gauzatzeko garaian, ahaztu gabe hizkuntza bat ikasten ari den ikaslearen lexikoia zertan bereizten den hiztun elebakarraren lexikoiatik —edo zertan daukaten antza— ere lagungarri izan daitekeela estrategiak zehazteko.

Itxura batean, lexikoia da hiztunak ikasitako hitzen biltegia, gero komunikazio-beharraren arabera erabiliko duena. Baina kontzeptu estatiko hori urrun gelditzen da hitzak ikasi, ordenatu, eta haien artean lotura askotarikoak eta sistematikoak egiteko prozesu konplexutik. Era berean, ez du zer ikusirik hiztun guztiek inoiz entzun ez dituzten hitzak sortzeko gaitasunarekin, ez eta hiztunek inoiz entzun ez dituzten hitz morfologikoki konplexuak interpretatzeko gaitasunarekin ere. Eta hiztunak, ez dugu duda egiten, baditu gaitasun horiek.

Beraz, egokiagoa da, lexikoia definitze aldera, pentsatzea lexikoaren bilketa eta antolaketa jaiotzetiko printzipio unibertsal batzuen mende daudela, eta printzipio horiei esker hiztun guztiek ziurtatuta dauzkate-lainbat trebetasun, hala lehen hizkuntzan nola bigarren hizkuntza batean.

Lexikoia definitzerakoan, beraz, gaitasun horiek ere hartuko ditugu kontuan eta esan hitz-biltegi batek eta arau batzuek osatzen dutela lexikoia (ez bakarrik biltegiak). Eta seguruenik, arau horiek gobernatzen dituzten printzipio abstraktu batzuek ere bai.

Lexikoia, horrenbestez, hiru oinarritzko mailatan irudika dezakegu:

1. Lehenengoan, hitzak sortzeko arauen datuak (morfema-zerrenda mugatu batez osatua).
2. Bigarrenean, hitzak sortzeko arauak.
3. Eta hirugarrenean, arau horiek aplikatuta lor daitezkeen emaitzak (hots, litezkeen hitzak), teorian behintzat hitz-multzo mugagabea osatzen dutenak. Teorian diogu, hiztuna ez baita gauza errealitatean hori dena buruan gordetzeko. Soilik existitzen diren hitzen azpimultzora murriztu dezakegu, beraz, litezkeen hitzen multzoa. Azpimultzo horretako hitzek, ez gehiagok, osatuko dute hiztunaren lexikoia.

Gramatika sortzaileak argi utzi digunez, hizkuntzaren azpian datzan mekanismoak bi mailatan jokatzen du. Batean, hiztunak esaldiak osatzen ditu, eta horretarako hitzak aukeratzen ditu eta sintaxi-arau batzuk aplikatzen; eta bestean, hitzak sortzeko, unitate txikiagoetatik abiatzen da –morfemetatik hain zuzen– eta beste arau batzuk aplikatzen ditu, morfologia-arauak.

Nahiz morfologia hizkuntza guztietan hitzak sortzeko baliabide garrantzizkoa den, garrantzi hori ez da neurri berekoa izaten. Gaztelaniazko aditzak, esaterako, berrogeita hamar forma inguru ditu, eta turkierak, berriz, ia bi mila izan ditzake. Euskaran, oro har, eratorpen-atzizkiak ugariak eta oso emankorrek dira, eta hortaz, garrantzi handikoa izango da eratorpen-atzizkiak eta haiek eransteko arauak ondo atzematea: oinarrian onartzen dituzten kategoria gramatikalak ezagutzea, alegia.

Irakaskuntzari begira, morfemen zerrenda gaika azalduz gero, ikasleari aukera ematen zaio zerrenda semantikoki antolatuak egiteko. Horrek lagundu dezake hitzen semantizazio-prozesuan⁸. Bestalde, eta hitzen formari dagokionez, *garri* atzizkia zein kategoria gramatikalen gainean ezar daitekeen jakitea, adibidez, atzizki horrek sortutako hitzari ematen dion esanahia ezagutzea bezain garrantzitsua da. Bestela esanda, morfema ezagutu behar da, eta horrekin batera morfema hori aplikatzeko arauak, morfema horrekin hitz eratorriak sortuko baditugu.

Era horretara ikasita, ikaslea gai da inoiz entzun ez duen hitz atzizkidunak ulertzeko –atzikiak hitzari ematen dion esanahia atzemateko gauza delako– ulermena erraztuz. Bestelakoa da, eta ondorengoa, ikasleak, idaztean edo hitz egitean –ekoiztean– sortutako hitz eratorriek ea benetan lekua duten **erabileran**, eta datu hori corpusak emango digu, corpusa “erabileren” biltegia baita.

Ikasleari ez zaio azaldu behar zergatik ez den erabiltzen gramatikalki ondo sortua dagoen bat. Hiztunon arbitrariotasunera jo behar genuke,

erantzuna bilatzekotan. Baina bai azaldu behar zaiola zein hitz erabiltzen diren eta zein ez, zein aukeratu dituzten hiztunek kontzeptuak eta gauzak irudikatzeke egoera bakoitzean eta entzulearen arabera. Informazio hori, esan dugun bezala, corpusak emango digu.

Baina, nola sortzen dituzte hiztunek hitzak? Hitzak sortzeko prozesua “analogia”n oinarritzen dela proposatu izan da beti, analogia honela definituta: analogia egitea da antzekoak (edo desberdinak) diren lexikoiko beste forma batzuekin identifikatzea. Chomsky-k, berriz, hiztunen sormen lexikoa ulertzeko, “gaitasun” kontzeptuari heltzen dio.

Ukatu egiten du hiztunek hitzak analogiaz sortzen dituztela eta interpreta-zio abstraktuagoa egiten du, “baliabide mugatuen erabilera mugaezina”z hitz egiten baitigu. Hiztunak jakite intuitiboak ditu, eta ezagupen intuitibo horien multzoa da, hain zuzen, gaitasun morfolexikoa⁹. Ikaslea ere gaitasun horretaz baliatuko da H₂ko lexikoia osatzeko, eta lehen hizkuntzarekin egiten den moduan, listemak, atzizkiak eta haiek konbinatzeko arauak, eta hitzen esanahia eta erabilera (barne egitura eta sintaktikoki konbinatzeko arauak) ikasiko ditu.

Hiztunak bigarren hizkuntza bateko hitzak memorizatuak dituela esan nahi du hitz horiek guztiak ulertu eta hizketan erabil ditzakeela, gogoratzeko trikimailu edo arau nemoteknikorik gabe. Hala den unetik bere-tik, bere lexikoiaren zati dira hitz horiek.

Baina hitzak sortzea (lexikogenesia) ez da bakarrik hizkuntza batek dituen atalak lotzea, unitate lexiko berriak sortzeko. Zerbait gehiago da. Hitzak sortzeko prozesuei buruz morfologia, lexikologia, morfofonologia, sin-taxi, semantika, pragmatika eta estilistikak badute zeresanik. Hori dela-eta, hitzen sortzea arlo eta ikuspegi askotatik landu daiteke, beti ere kontuan harturik atzizkiek hitzei eransten dieten esanahia atzeman behar dela, hitz-zerrendak ikasi baino. Izan ere, *-kor* atzizkiak, esaterako, oinarriari ematen dion esanahia ikasi behar da, ez *maitakor*, *haserrekor*, *suminkor*... hitzen gaztelaniazko baliokideak, banan-banan. Hori baita, gure ustez, euskal lexikoa ikasteko bide emankorra, eta lexikoia antolatzeke era ziurragoa.

Lexikogenesiari dagokionez, nabarmendu nahi dugu lexikoia definitzean zehaztu ditugun hiru mailez gain, euskararen beste oinarrizko ezaugarri batzuei –aglutinazioari eta aditzak sortzeko baliabideari– ere eman behar diegula arreta, irakas-prozesua zehazten lagunduko digutelakoan.

Baliabideak biltze aldera, beraz, lehenik, eratorpen-morfemen zerrenda osatu behar da, ikasmaila batetik aurrera aditz-izenari leku berezia eginez. Lehen esan dugun bezala, zerrenda hori esanahiaren arabera egitea kome-ni da, ikasleak ondo jabe daitezen atzizki bat ezartzean hitz bati erans-ten zaion esanahiaz. Hori baita hain zuzen atzeman behar dutena, hitz eratorrien itzulpen zuzenetik harago, edo hobe esanda, beste hizkuntza batzuetako zuzeneko baliokideak baino gehiago.

Bigarren, atzizki bakoitzak oinarrian onartzen dituen kategoria grama-tikalen zerrendak egin behar dira, sor litezkeen hitzen multzoak uler

ditzaten. Ondoren, euskarak oso garatua duen baliabide bat: izen, adjektibo eta adberbioetatik abiatuta, *-tu* erantsiz aditzak sortzeko baliabidea. Oso bide emankorra –eta gainera erraza– denez, behe-beheko mailetatik ezagutu behar lukete ikasleek, zailtasun eskasaren ordainean autonomia lexiko handia ematen baitie.

Eta azkenik, euskarak duen aglutinatzeko ahalbidea; alegia, hitz soil baten gainean eratorpen-atzizki bat erantsiz gero sortzen den hitza, berriro ere, oinarri gramatikala izan daitekeela, beste eratorpen-atzizki bat erantsita, hitz berri bat sortzeko.

Eta lexikogenesiak barne hartzen dituen esparruez ari garela, ezin ahaztu dezakegu mailegutza, bostgarren oin-oharrean esaten dugun legez. Izan ere, hitz asko eta asko maileguak ditugu, eta hori dela-eta, beharrezkoa da ikasleek jakitea zein diren euskal hitzunak betetzen dituen arauak (fonetikoak barne), maileguak euskaratzeko.

Arau fonetiko horiek, neutralizazioak-eta, gutxi direnez gero, ikas-prozesuaren hasiera-hasieratik eman behar zaizkio ikasleari, komunikatzen duenari ulergarritasuna eta “benetakotasuna” ematen baitiote. Oro har, H₂ko hitzunak lehen unetik beretik ekin behar dio, ahal den neurrian, hizkuntza berri horren doinua, fonetika eta azentua barneratzeko prozesuari. Ez da goi-mailetan lantzeko kontua, eta hala onartuta dagoela uste dugu, hitzunak “belarria” egitea garrantzizkotzat jotzen baita.

Fraseologia

Eratorpen eta mailegutza gain, guk beste alderdi bat jorratu nahi dugu hemen, eskuarki alde batera uzten dena¹⁰. Lexikologiaren azpidiziplina da, eta askotan arazo larriak ekar diezazkioke bigarren hizkuntza bateko ikasleari. **Fraseologiaz**¹¹ ari gara. Funtsezko arloa berau, hitz-konbinazio askoren esanahia ezin baita ondorioztatu osagaien esanahiak ezagututa. Alegia, konbinazioen deskodetze-prozesuan ez da aski hitz guztien esanahiak batzea, eta hitz-multzoak bere osotasunean duen esanahia ezagutu behar da. *Zur eta lur gelditu, ate adina maratila eduki, hileta jotzen ibili, hari berekoak izan* edota *egurra jo* hitz-andanetan, esaterako, ez da nahikoa hitzez-hitzeke esanahia ezagutzea, eta erabilerak konbinazio horietarako finkatu dituen esanahi bereziak (eta konkretuak) ezagutu behar dira, hitz-multzoak ulertu ahal izateko.

Jakintza-arlo honek hitz-konbinazio egonkorak aztertzen ditu, eta barne hartzen ditu paremiak, hizketa-formulak, lokuzio edo modismoak eta kolokazioak. Horiek guztiak dira, beraz, fraseologiaren sailkapena egiterakoan multzokatu behar liratekeenak. Zeren lexikoa antolatzea da fraseologia ere antolatzea, lexikoaren zati bat delako, garrantzi handikoa gainera.

• *Paremiak.*–

Inork ez du zalantzan jartzen ikasleek paremiak –hots, esaera zaharrak edo errefrauak– jakin behar dituztela; baina hori bezain garrantzitsua iruditzen zaigu errefraueta-eta gordetzen diren formulazioez ere

jabetzea, oso baliagarriak zaizkigulako egun sloganak eta indarreko esaldiak eta titularrak egiteko. Izan ere, errefrau askotan ikusten ditugu *nolako... halako, nola... hala..., zenbat... hainbat...*, eta formulazio horiek, berriro diogu, egun ere esaldi eginak edo errefrau berriak sortzeko ere balio dezakete, eta horrenbestez, erabilitako hizkuntzari freskotasuna emateko ere bai.

Ikasleek gai izan behar dute formulazio horiek erabiltzeko, egun gizarteak –hiztunek– baliatzen dituztelako. Publizitatean ikusitako “non burua, han zangoa” leloarekin frogatu nahi dugu egun formulazio horiek erabiltzen direla, eta gure ustean hizkuntzak irabazi egiten duela, galdu orde.

Esatera zaharrei dagokienez, azpimarratzekoa da ezinbestekoa dela zerrendetako errefrauak benetan egun erabiliak izatea, ez baita nahikoa, gure ustetan, zerrenda batean edo hiztegi batean agertzea, maiztasunak erabilera hori frogatzen ez badigu. Hori izan behar litzateke, ez besterik, errefrauak ikas-zerrendetan sartzeko irizpide bakarra.

- *Hizketa-formulak.* –

Horiei buruz ezer gutxi esatea aski da, pragmatikak argi asko utzi baitigu formula horiek (kortesiazkoak, elkarrekintzan erabili beharrekoak) direla hain zuzen hiztunok komunikatzeko etengabe erabiltzen ditugun esaldiak. Hizkuntza bat jakitea izango da, besteak beste, hizketa-formula horiek ezagutzea eta erabiltzen jakitea. Irakaskuntzari dagokionez, formula horiek bildu eta mailaka banatu behar lirateke. Behe-mailetatik hasita, irakasprozesuaren abiatzetik bertatik ekoiztu behar baititu ikasleak elkarrizketa ahalik eta errealean¹².

- *Lokuzioak.* –

Fraseologiaren arloa zehazteko bidean, beste esparru bat aipatu beharra dago: lokuzioek osatzen dutena. Oso esparru zabala da. Izan ere, euskarak, alde batetik, baditu zenbait aditz (*izan, hartu, egin, eman*), zeinek, izena erantsita, lokuzioak sortzen baitituzte (batzuk oso lexikalizatuak¹³, beste batzuk ez hainbeste): *min egin/eman, alde egin, duda egin, lo egin...* semantikoki gardenak direnak. I. Sarasolak –argitaratu gabeko idazlan batean– bi multzo bereizten ditu: *bata, bizi/nahi/behar/ izan* aditzez osatutakoa (izenak partizioarena egiten du, eta horrenbestez, *biziko, nahiko, beharko* esan dezakegu geroaldia egiteko); eta bestea, *gose / atsegin... izan, min eman, kolpe hartu...* eta era horretako aditzez osatutakoa (benetako aditz konposatuak)¹⁴. Baliabidea bera –alegia, *izena + egin/eman/hartu* egitura– ere barneratzea komenigarria da oso emankorra baita. Horiezaz gain, baditugu, bestetik, semantikoki gardenak ez diren lokuzioak (*begirik ez bildu; zur eta lur gelditu/utzi, pikutara/antzarak ferratzera bidali*¹⁵); unitate lexiko hauek –listema hauek– ez dira semantikoki guztiz gardenak, eta horrenbestez, unitate lexiko osoaren esanahia irakatsi behar zaie.

Lokuzioen ezaugarri nagusiak hauek dira:

- **Kohesio morfosintaktikoa.** Hitz-konbinazio egonkor eta aldaezinak dira, osagaiak aldaezinak direlako (*izotza hautsi*, ez **izotzak hautsi*; *egurra jo*, ez **egurrak jo*); osagaiak ezin daitezke beste batzuekin trukatu (*hanka sartu*, baina ez **hanka barruratu*); eta osagaien artean ezin da ezer tartekatu (**ez buru handirik ez hankarik*).
- **Kohesio semantikoa.** Esanahi-batasuna dute hizkuntzan, hala konposiziozkoa (*onik eta osorik*) nola metaforikoa (*saltsatan sartu*, *ur handietan sartu*¹⁶). Arbitrarioa (hautazkoa) da haien egitura semantiko globala, hots, esanahia ez da gardena. Egin daiteke nolabaiteko lotura hitzez hitzeko esanahiaren eta lokuzioaren esanahiaren artean, baina lokuzio bat ezin uler daiteke soilik ikuspegi linguistikotik: testuinguru kulturala, soziala edo erlijiosoa hartu behar dira kontuan, esanahi osoa atzemateko (*amen batean*, *aitaren batean*¹⁷).

Gramatikaren ikuspegitik, lokuzio nominalak (*mahai ingurua*), adjektiboak (*pareta baino zuriagoa*), adberbialak (*berandu baino lehen*, *gutxi gorabehera*) eta aditzekoak (*bere onetik atera*, *ziria sartu*) ditugu.

Sintaxiaren ikuspegitik, esan dezakegu lokuzioak sintaxiaren lexikalizazio-kasuak direla, hau da, hainbat pieza lexikok osatutako multzoak, semantikoki pieza lexiko bakarrak balira bezala jokatzeko dutenak. **Hitz-konbinazio finkoak dira, beraz, eta esanahi-batasuna dute, ez gardena.**

Kolokazioak

Baina errefrau eta hizketa-formulak ez diren hitz-konbinazio guztiak ez baitira lokuzioak, beste hitzen konbinazio-mota bat hartu behar dugu kontuan. Garrantzia dute fraseologiaren esparruan eta lan honetan arreta berezia eman nahi diegu. Izan ere, erreparatu nahi diegu nolabaiteko finkotasun-maila (hau da, beste hitz batzuekin agertzeko maiztasun-maila nabarmena) izateagatik konbinazio erabat libre ez diren hainbat unitateri, **kolokazioei**¹⁸ hain zuzen.

Kolokazioak ezinbestekoak dira norberaren hizkuntzaren erabileran, baita beste hizkuntzen ikaskuntzan, eta beraz irakaskuntzan nahiz itzulpengintzan. Guri dagokigunez, irakaskuntzan duten garrantziaz jabetuta, saiatuko gara zer diren azaltzen. Hizkuntza guztietan dira garrantzizkoak; are garrantzizkoagoak euskarari dagokionez, ez baitugu hiztegi konbinatorik, kolokazioak neurri batean behintzat biltzen dituenik¹⁹.

Kolokazioak aztertzeke eta definitzeke bi ikuspegi daude²⁰:

- Korrante estatistikoa.
- Korrante semantikoa.

Lehenengoan, (aditu gehienak biltzen ditu), kolokazioaren kontzeptua, funtsean, bi unitate lexiko batera agertzeko maiztasunarekin dago lotua; hau da, kolokazioa identifikatzen dute konbinazioarekin; bestean (ez hain

zabaldua), hitz-konbinaziotik abiatzen dira, baina beste datu batzuk dituzte kontuan, hitz-andanak kolokaziotzat hartuko diren baieztatzeko.

Hasteko, onartzen da nolabaiteko lotura semantikoa dagoela osagaien artean. Baina horrez gain, kolokazioen sailkapena egiten dute, osagaien kategoria gramatikalen arabera, eta haien artean dituzten sintaxi-erlazioei begira.

Guk bigarren korronteari jarraituko diogu eta esan kolokazioak direla bi hitz edo gehiagoren konbinazio mugatuak eta hein batean egonkorrak, hiltunek maiz erabiliak eta beti berrerabilgarriak (erreproduktiboak).

Kolokazioetako osagaiek haien artean lotura sintaktikoa eta nolabaiteko harreman semantikoa dute²¹. Ez dira enuntziatu oso -zati bat baizik-, eta ez hitz-egintza²², hizketa-fomulak eta errefrauak edo aipamenak bezala. Arau mailan edo erabileran finkatuak direnez, konbinazio-lehentasunak eta murrizketak²³ agertzen dituzte, erabilerak ezarriak, oinarri semantikoak. Kolokatu semantikoki autonomoak (oinarria, lema edo giltz-hitza²⁴), kolokatiboa hautatzen du, ez nolanahikoa; izan ere, normalean kolokatibo horren adiera abstraktu edo figuratibo berezi bat hautatzen du, askotan ia gramatikalizatua, osagaien arteko atxikimendu lexiko handia lortuz²⁵ (*zergak igo, abaila bizian*²⁶).

Kolokazioak, esan dugunez, hitz-konbinazio ia libreak dira, baina arau²⁷ eta erabilera mailan finkatuak daude. Egonkorrak dira formaz, baina malgutasuna agertzen dute joskeran, batez ere idazle landuetan.

Lokuzioetatik bereizi behar dira: kolokazioak arau mailakoak dira eta ez hizkuntzaren sistemakoak, lokuzioak diren bezala. Izan ere, hiltunek finkatzen dituzte, era arbitrarioan, erabileran. Lokuzioak, esan dugun bezala, esanahi-batasuna du; kolokazioetan, ordea, osagai batek (oinarriak) bestea (kolokatiboa) eta haren adiera berezia hautatzen du (*gizon langilea*, baina *emakume maratza*²⁸). Azkenez, esan dezakegu kolokazioak aldakorak eta galkorak direla: modan jartzen dira eta gero galtzen (*etxe-koandre begiratu, bizirik alargun, ama-hizkuntza*²⁹).

Desberdinak diren hizkuntzetako kolokazioen artean parekotasuna ageri da, ikerlarien arabera, eta hori hizkuntzek elkarrekin irudi kontzeptualak konpartitzen dituztelako da³⁰.

Beraz, bi hitz edo gehiago –erregistroak erregistro– sarri agertzen badira elkarrekin (*arma automatikoa, haizea bortiztu/zakartu, itsasoa zakartu/harroto, gizona zakartu/haserretu, lanari ekin*); arrazoi semantiko-sintaktikoak direla-eta murrizketa lexikoa agertzen badute (*erabaki bat hartu* eta ez **erabaki bat egin*); malgutasun formala baldin badute, murrizketa lexikoa kolokatuetakoa batek bakarrik agertzen duelako (*kargua bete, eginkizuna bete*) –adjektiborik ere onartzen dute (*erabaki sendoa hartu, eginkizun zaila bete*)–; semantikoki, osagaien esanahitik abiatuta ulertzen bada multzoaren esanahia (*eztabaida piztu*), eta erredundantzia eta intentsifikazio mailak agertzen baditu (*uste osoa, asmo sendoa*³¹), esango dugu kolokazioak direla. Horrenbestez, esan dezakegu horiek direla kolokazioen ezaugarri nagusiak.

Bi motatako unitateak bereizi behar ditugu kolokazioei dagokienez:

- **Kolokazio gramatikalak**³²: euskaraz aditzak eta dagokien erregimena (-ri ekin, -z/-kin gogoratu, -ri utzi), posposizioak (-tik kanpo(an), -z kanpo, -tik landa(n), -(r)en ondoan...) ³³, eta sintaxi mailako erregimenak (kalerik kale, aldapan gora).
- **Kolokazio lexikoak**: Ez dira konbinazio guztiz libreak (konbinagarritasun murriztailean agertzen dira), eta lokuzioak ez bezala, ez daude guztiz finkatuak eta badira semantikoki gardenak³⁴. Euskaraz, lehen kolpean, hauxek dira ager daitezkeen kolokazioak: aposizioak (izena + izena (*X izpiak*)), hitz elkartuak (izena+ izena (*bihotz-taupada*)), izena+ adjketiboa (*txori kantaria*,) eta izena + adjektibo erreferentziagileaz osatutako izen sintagmak (*abagune ekonomikoa*)³⁵, semantikoki gardenak kasu guztietan, nolanahi ere³⁶. Baina aurrekoetz gain, badaude beste kolokazio batzuk, zaku horretan sartu nahi ditugunak, nahiz kokolazioen esparruan muga-mugan –edo, besterentzat, mugetatik at– dauden³⁷.

Zernahi gisaz, jarriko geniekeen izena eta emango geniekeen kategoria linguistikoa alde batera utzita, honako hau garbi dago: ikasle batek *kalteak* terminoa erabiltzean jakin behar du *kalteak eragin* (eta ez **kalteak sortu*) dela hautatu behar duen konbinazioa, edota *erabaki bat hartu* (ez **erabaki bat egin*); halaber, esaterako, *urrats(ak)* terminoa erabili nahi badu, *egin* aukeratu beharko du (*urrats(ak) egin*), **urrats(ak) eman* baztertuz³⁸. *Legea ezarri* eta *jarri* egiten da; hori jakitea ere beharrezkoa dute ikasleek, eta horrenbestez, lantzeko hiztegian isla izan beharko du³⁹.

Aukeratutako adibideetan ikus dezakegu, lehen kolpean, zer-nolako konbinazioak saiatzzen ari garen definitzen. Izan ere, *kalteak eragin* kolokazioari bueltatuz, ikasleak ez du nahikoa *kalte* hitza ezagutzearekin hitz horren erabilera ziurtatzeko, eta jakin beharko du –maiztasunak hala ageriratuta– zer hitzekin (batez ere zer aditzekin eta zer adjektiborekin) lotua erabiltzen duten euskal hiztunek⁴⁰.

Hiztegia ikasteko arazo nagusietako bat dira kolokazioak, eta hala irakasmetodoetan nola hizkuntzen ikas-prozesuetan beharrezkoa izango litzateke zailtasun horretaz jabetzea eta abian jartzea hitz-konbinazio horien osagarrien ordena hierarkikoa mugatzeko eta asimilatzekeo baliabideak. Izan ere, H₂k ikasleak ez dira nahasten kolokazioaren nukleoa edo oinarria aukeratzean. Ezagutzen ez dutena da zein hitzekin konbinatzen den, hau da, kolokatiboa zein den. Eta hori da, gure ustetan, irakatsi behar zaiena.

Onartzen dugu, bestalde, kolokazioak ez direla soil-soilik ikasi eta landu behar den arloa. Izan ere, lexikoa, oro har, ikasi behar dute, baina leku berezia eman behar zaielakoan gaude, ikasleak erabilera errealetara hurbil daitezzen, eta ondorioz, gaitasun komunikatiboa gara dezaten.

Idazlan honetan zehazten saiatu garen fraseologiaren esparrua, honako eskema honetan (ikus .1) laburbildu dezakegu:

.1:


	<i>Kolokazioak</i>	<i>Lokuizioak</i>	<i>Errefrauak</i>
<i>Finkapena</i> →	arauan	Sisteman	sisteman
<i>Kohesio Morfosintaktikoa</i> →	Malgua	Egitura finkoa	Egitura finkoa
<i>Konposizionalitate sintaktikoa</i> →	Oso erlatiboa	Ez dago (mailak badaude ere)	Ez dago (esaldiak osoak dira)
<i>Kohesio semantikoa</i> →	Esanahi gardena (osagaien esanahia ezagututa ulertzen da)	Esanahi ez-gardena.	Esanahi ez-gardena
	Esanahi bakarra	Hitzez hitzeko esanahia Esanahi metaforikoa	Esanahi metaforikoa, historia edo jarduera bati lotua.

Ondorioa: lexikoa eta didaktika

Edozein proposamen didaktikok, ikasleei gaitasun komunikatiboa garatzen laguntzea izango du helburu. Eta horretarako, euskaraz ere, ohiko lexikoko unitateak erabiltzen lagundu behar zaie. Ikasleen hiztegia aberasteko modu asko daude, baina idazlan honetan behin eta berriro aipatu dugun bezala, ikasleak ez ditu besterik gabe hitzak lotu behar ariketak edo jarduerak egiten dituenean, baizik eta ikasi behar ditu hitz horien esanahiak, konbinazioak eta erabilera mailak.

Ullman-en hiruki semantikoa abiaburu hartuta, Gómez Molinak (1997) eredu didaktiko bat proposatzen du, hitz nuklearraren inguruan antolatua. Eskema moduan, labur-labur bada ere, antolaketa hori proposatzen dugu guk ere⁴¹ unitate lexikoak lexikoian sendo finkatzeko. Ereduan (ikus .2) baina, aldaketa txiki bat egiten dugu, 6. erpinean, esamoldeak ez ezik kolokazioak ere sartzeko.

.2:



1. Erreferenteak. Hitz nuklearrarekin erlazionaturiko unitate lexikoak ezagutzea edo gogoratzea.
2. Lexikogenesia. Morfemen esanahia eta morfema horiek aplikatzeko arauak ezagutzea.
3. Erlazio semikoak. Hitzen denotazioa eta konnotazioa lantzea.
4. Elkarketa kontzeptualak. Eredu lexiko eta semantikoak (gaiaren arabekoak).
5. Erabilera mailak. Erregistroak.
6. Esamoldeak. Esamolde eginak: idiomatikoak, lokuzioak, kolokazioak.
7. Jeneralizazioa. Erabilera kontestualizatzea.

Hauxe egin behar litzateke, gure ustean, didaktika mailan:

- a. Hiztegia testuinguruan eman beharko zaio ikasleari, ahalik eta informazio gehien eskainiz.
- b. Ikasleak duen munduaren eta gaiaren ezagutzaren arabera eta zailtasun-mailaren arabera hautatuko da hiztegi hori.
- c. Erreferentziak bilatzeko teknikak lantzeko aukera emango zaio;
- d. Mota batzuetako hiztegiak eskainiko zaizkio.
- e. Ikasleak lexikoiaz jabe daitezzen hainbat jardura prestatu beharko dira: eratorpena eta hitz-elkarketa; hiponimia eta hiperonimia; esamoldeak; sinonimia eta antonimia; polisemia; eredu semantikoak eta elkartzere-eremuak. Eta, zer esanik ez, hiztegiak erabiltzen trebatu ikasleak.

Helburua, ikasleak semantizazio-prozesua era egokian egitea, eta horrenbestez, lexikoa osatzea. Horixe da helmuga.

Oharrak

1. Mila esker Mirari Osinaga eta Jaione Vitoria irakasleei. Laguntza handikoak izan dira haiek egindako oharrak, ikasleek lexikoa ikasteko prozesuan izaten dituzten zailtasun eta gorabeheren buruzkoak.
2. Zenbaitentzat metodo-ondoko garaira iritsi gara, metodoa aplikatu beharreko testuinguruak/moduak eta ikasketa-planek dutelako azken zeresana.
3. Hots, aldaera diafasikoak.
4. P. Esnalen hitzak jasotzen ditugu esatean “Auspoa” bilduma luxuzko altxorra dugula herri-literaturaren esparruan.
5. Eta, jakina, blog eta weborrietan.
6. Lexikogenesia: hitzak sortzea.
7. Euskarari dagokionez, eratorpen-atzizkiei kasu berezia egin behar zaie, argi dago; baina mailegutza ahaztu gabe, izugarritzko garrantzia baitu euskara normalizatuan.
8. Adibidez, nolakotasuna adieraztekoak bilduta, edo egilea adieraztekoak, Azkuek “Morfologia Vasca”n egin zuen moduan, beti ere gaurko erabilpen-maiztasuna kontuan hartuta, jakina. Horrekin batera, ikusi behar da atzetan edo ikasproiektuetan multzo bakoitzetik zenbat landu litezkeen ikasmaita bakoitzean.
9. Gaitasun hori landuko du euskara-ikasleak lexikoa ikasteen.

10. Ez bakarrik euskararen irakaskuntzan, baizik eta hizkuntza gahenenean.
11. Talde baten, garai bateko, jarduera bateko edo gizabanako baten adierazpide bereizgarrien multzoa, erabilerak finkatu dituenak.
12. Elkarrizketak, gertatzen diren unetik beretik, errealek dira beti, espazioan eta denboran gertatzen direlako. Guk hemen, baina, “erreal” hitzarekin adierazi nahi dugu edozein hitzun euskaldunek izan lezakeen elkarrizketa, hau da, hitzun euskaldunen erabilerei egokia.
13. *Alde egin*, esaterako, guztiz lexikalizatua dago. Izan ere, ezezko perpausetan nola jokatzeko duen begiratzea besterik ez dago.
14. Geroago azalduko dugun arabera, guk, semantikoki gardenak direnez gero, ez ditugu lokuzioen zakuan sartzen, eta besterik gabeko aditz konposatutzat jotzen ditugu bi multzoak, berezi samarrrak, hori bai. Edonola ere, irakasteari begira, aditz konposatu horien guztien azpian datzan sortze-mekanismoak jabeaz behar zaie ikasleei, alde batetik; eta bestetik, jakinarazi tradizioak ekarri dizkigun formak (*biziko, nahiko, beharko, damuko...*) ditugula *nahi izango, behar izango...* forma modernoagoen ondoan.
15. Gure ustez benetako lokuzioak direnak.
16. Berririo diogu, hitzunez eman diogun esanahi berezia jakin behar da, hitz-konbinazio horren esanahia ezin baita ondorioztatuz, besterik gabe, konbinazioaren hitzen esanahia jakinda.
17. Horrenbestez, ezaugarri soziokulturalek zerikusia dute komunikazio linguistikoa. Hala izanik, ikasleek gaitasun soziolinguistikoak baliatuko beharko dituzte irakas-prozesuan.
18. Corpas-i (1977) jarraitzen diogu definizioan.
19. Nabarmendu nahi dugu, dena den, zenbait hiztegi elebidunetan (*Oinarritzko Euskal Hiztegia* eta batez ere *Hiztegi Handia*) sarrera eta adieretan jasota dauden adibideak “kolokazioen” eredu izateko asmoarekin bildu genituela egileok, eredu horiek ezinbesteko informazioa direlakoan hitzak kontestuan erabili ahal izateko.
20. Corpas-en eta Bosque-ren aipamenak batez ere jasotzen ditugu.
21. Esan bezala, ikuspegi semantistari jarraitzen diogu baieztapen horretan. Ikuspegi estatistikoa
- jarraitzaileek, bere aldetik, diote “estereotipoak” direla kolokazioak, eta hizkuntzek isola eta errepika daitezkeen unitatetzat jotzen dituztela erregularrak, fenomeno jakin bati atxikiak edota sarri erabiliak direlako.
22. Gaztelaniaz “acto de habla”.
23. Ezinbestekoa deritzogu ikasleak erabilera horiek ezagutzei, eta beraz behar-beharrezkoa iruditzen zaigu ikasprozesuan leku berezia izatea.
24. gaztelaniaz “base, lema, núcleo”
25. Terminologian Coseriu-ri jarraitzen diogu: *solidarité lexicale*.
26. Eta ez *abaila azkarrean.
27. Coseriu, Saussure-ren teoritik abiatuta, ezarritako sistema/araua/hizketa bereizketari jarraitzen diogu.
28. Hizkera sexistaren ondorioz sortuak.
29. Egun «lehen hizkuntza» erabili behar dugu, «ama-hizkuntza»ko kontzeptua bera desagertu delako.
30. Gaztelaniazko “Violencia de género/machista” konbinazioak, esaterako, kontzeptu bat irudikatzen du, hizkuntza askok konpartitzen dutena.
31. Ikasleek beharrezkoa dute erabilera horiek ezagutzea, argi dago. Are argiago itzulpenak egiterakoan *esfuerzo improbable, desatarse la polémica, embravecerse el mar/una persona* eta era horretako kolokazioen ordainak bilatu behar direnean, ezin egin baitaiteke hitzez-hitzei itzulpena (**eztabaida askatu; itsasoa harrotu* vs. **gizona harrotu* (*haserretu*-ren esanahiaz)). Izan ere, euskaraz dagozkien hitz-konbinazioetara jo behar dugu, itzulpen zuzena egingo badugu.
32. Hitz bat eta preposizio bat gaztelaniaz, esaterako.
33. Hemen kontuan hartu behar genituzke lehen hizkuntzatik gertu dauden egituretatik sortutako interferentziak aditz-erregimenetan, erabili beharreko atzizkietan edo hitzetan beretan: «*printzean bihurtu», «*siesta bota», «*atentzioa deitu», «*min asko» esaterako, gaztelaniazko interferentziek sortutakoak dira.
34. Corpasek sei multzo bereizten ditu, gaztelaniazko dagokionez: 1) izen (subjektua) + aditza (*zarpar un barco*); 2) aditza + izena (objektua) (*dar un*

- guantazo); 3) adjektibo + izena (*improbo esfuerso*); 4) izena + preposizioa + izena (*golpe de suerte*); 5) izena+ izena (*abuela canguro, hombre objeto*); eta 6) izena + adjektiboa (*coyuntura económica*). Euskaraz “izena+ preposizioa + izena” eta “izena+adjektiboa (erreferentziala)” multzoetan hitz elkartuak osa ditzakegu: *coyuntura económica: ekonomia-abagunea; sistema de referencia: erreferentzia- sistema*.
35. Kontzeptu asko, euskaraz, hitz elkartu baten bitartez adierazten dugun hein berean, izen bat eta adjektibo erreferentziagile batez osatutako sintagma baten bidez ere adieraz dezakegu, kasu bietan esanahi bera dutelarik (*coyuntura económica: ekonomia-abagunea/ abagune ekonomikoa*). Bataren eta bestearen agerpen-maiztasunak ere kontuan hartu behar genituzke eta irakasteko metodoetara helarazi.
36. Gaztelaniaz, adibidez, aditu batzuek “izena + izena” egiturako zenbait hitz-konbinazio (abuela canguro, hombre objeto, arma blanca...) sartuko lituzkete hemen, eta beste batzuek, aldiz, lokuziotzat hartuko lituzkete.
37. Bosqueri jarraikiz, esan dezakegu kolokazioen esparruaren mugak zedarritzeko zailak direla, askotan lokuzioetatik bereizteko zaila direlako. Izan ere, adituen irizpideen arabera izaten da lokuzioen eta kolokazioen arteko muga: gaztelaniazko hitz elkartuak (edota hitz elkartu eta aposizioak, euskaraz) lokuzioen zakuan nahiz kolokazioenean sartzen dituzte (cf. 34. oin-oharreko adibideak). Irizpideak finkatze aldera, semantikoki gardenak badira kolokaziotzat hartuko ditugu, eta gardenak ez badira, lokuziotzat. Horretatik landa, kolokazioaren kontzeptuak berak hiztunen momentuan momentuko erabilera hautazkoekin ere egiten du topo. Hau da, askotan zaila egingo zaigu esatea aukeratutako hitz-konbinazio bat benetan murriztapen lexiko bat den edo konbinazio librea den.
- Egun, esaterako, “legea ezarri” eta “legea jarri”, maiztasun-diferentzia gorabehera, biak erabiltzen dira (“euskal hiztunek erabiltzen dituzte”) kontzeptu bera azaltzeko. Maiztasunari erreparatuta, esan dezakegu “legea ezarri” beste konbinazioa baino gehiago erabiltzen dela. Agian, diakroniaren lerroan, erabilerak “legea ezarri” finkatuko du eta ondorioz kolokazio bat sortu. Edo ez, erabilerak bide horretatik jarraitu ez duelako.
38. Garbi dago H₂ko hiztegia ikasteen, hitzen kolokazio eta sintaxiari buruzko informazioa jasotzeko ariketak egin behar direla, hau da, semantizazio-prozesua landu behar dela.
39. Bosqueren gaztelaniazko “Redes”aren baliokiderik ez dugu euskaraz, baina ziur gaude irakas-materialgintzatik tankera horretako hiztegitxo bat atera datekeela, hitzak erabiltzeko kontestu semantikoetan zerrendatzen saiatzen bagara, kontestuko adibideak emateaz gain. Horrela, predikatu, argumentu eta klase lexikoei buruzko informazioa bilduko lukeen hiztegitxo bat egingo genuke.
- Ohar gaitezen, bestalde, aipatutako adibide horiek guztiek finkotasun-maila edo gradu diferentia dutela, denak kolokazioak badira ere.
40. Horrek hitzen sare semantikoen beste ikuspegi batera garamatza.
41. Gómez Molinak 6.erpinean “expresiones hechas” terminoa erabiltzen du, esanahi gardenekoak ez diren adierazpide finkoak edo konbinazioak izendatzeko.

Bibliografia

- Bosque, I. 2004. *Redes. Diccionario combinatorio del español contemporáneo*. Madrid, Ed. S. M.
- Cabré, T. y C. Gelpí 2000. *Lèxic, corpus y diccionaris*, Cicle de conferències i seminaris. Universitat Pompeu Fabra, IULA, Barcelona.
- Chomsky, N. 1965. *Aspects of the Theory of Syntax*. Cambridge.
- Corpas Pastor, G. 1997. *Manual de fraseología española*, Gredos, 1997.
- Corpas Pastor, G. 2001. *Corrientes actuales de la investigación fraseológica en Europa*. Euskera.
- Coseriu, E. 1966. *Structure lexicale et enseignement du vocabulaire*. Actes du premier colloque international de linguistique appliquée.
- Coseriu, E. 1977. *Principios de semántica estructural*. Madrid: Gredos.
- Cottier, B. 1964. *Vers une sémantique moderne. Tra-vaux de Linguistique et Littérature*.
- Conseil de l'Europe. *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia marko*. Itzulp. HABE.

- EsnaI, P.** 2001. "*Ortic eta emendic*": euskal lokuzioak eta fraseologia baino ere haratago. Euskera 2001, 46. liburukian, 137-144 orr. ak.
- Euskaltzaindia.** *Literatura terminoen hiztegia.*
- Garzia, J. R.** *Jendaurrean hizlari.*
- Gómez Molina, J. R.** *El léxico y su didáctica: una propuesta metodológica.*
- Izagirre, K.** 1981. *Euskal lokuzioak. Espainolezko eta frantsesezko gida-zerrendarekin.* Hordago.
- Kaltzakorta, X.** 2001. *Euskal Fraseologia.* Euskera XLVI.
- Katz, J. J.** 1966. *The Philosophy of Language.* N. York, Harper & Row.
- Moliner, M.** 1988. *Diccionario de uso del español.* Madrid, Gredos.
- Richards J. C., Rodgers T. S.** 2001. *Approaches and Methods in Language Teaching.* Cambridge University Press.
- Saussure, F.** 1916. *Cours de linguistique générale.* (1998) *Hizkuntzalaritza orokorreko ikastaroa.* Klasikoak. Itzultz. Arrigain, I.
- Seco, M.** 1979. *El contorno en la definición lexicográfica,* In *Homenaje a Samuel Gili Gaya.* Barcelona, Vox.
- Singleton, D.** (Koord.) (1994) *L'acquisition du lexique d'une langue étrangère.*
- Serrano-Dolader, D.** *La formación de palabras en español.* Centro Virtual Cervantes. Didactired.